

Distantzia 11,8 km	Desnibela 530 m	Iraupena 5h00	Tipologia Itzulia	Zedarriak PR seinaletika horia
------------------------------	---------------------------	-------------------------	-----------------------------	--

D918aren bidez Urdiñarbera joan. Mauletik etortzerakoan eskuin, bereizketa selektibodun aparkalekua atzeman (Kalbegi bidea seinalea).

GPS datuak: **UTM : 665211 - 4784602 Lat/Long : 43.19612/0.96663**

Itzuli honek, ongi bizirik den laborantza mundua deskubriarazten digu. Ibar zolan engranatzaren diren etxaldeak, larre anitzekin beti aktibo dira. Oihanak eta mendi ertainetako larreak zeharkatuz, agro-artzaingoaren kultura hori hobeki ulertzen da. San Antoniko kaperak, udazkenean uso ihizirako famatua den Oskaxe lepoa gainetik so egiten du. Tontorretik, Xiberoa, Basabürüko mendi, Arbaillako mendigune karstikoa eta Baxenabarreko gainean bista harrigarria da.



1. ZATIA > Hilerri pareko aparkalekua

UTM : 665211 4784602

Aparkaleku pareko seinaletik, Arrokairetako etxaldearen bidea segitu. Zubi bat pasatu eta Barretxea etxaldearen ondotik, eskuin hartu. Arrokairetako etxaldea eta gero, Bedaxagar etxaldera arte xuxen segitu. Bide mundrunatuaren bukaera da.

2. ZATIA > Bedaxagar etxaldea


UTM : 663280 4783670

Etxaldeko eraikinen gibeletik pasatzen den harrizko bidexka ezkerrean hartu. Haritz pedunkuludun oihan batera sartu aitzin kanadar pasabide bat iragan. Bihurgune batzuen ondotik, pista oihanetik ateratzen da eta lepo zabal baterantz doa. Hor konpostelako GR78a batzen dugu.

3. ZATIA > Ehüsako lepoa 551m

UTM : 662467 - 4782450

Lepoan, Elaudiko tontor biribila ezkerrean utzi, eta larre ederren artean, gain-ordokian eskuin hartu. Abereentzako hespilaren ondotik, GR78a utziz, Donaixtira buruz eskuin hartu. Arbaillako mendigune kare-harritsuaren gainean bista ederra. Pista kaskoraino pixkanaka-pixkanaka igotzera doa. 360°ko panorama alimalekoa da: Uhaitzako ibarra, Biarnoko mendiak, Basaburuko ibarra, eskuinean Arbailetako mendigune karstikoa, Baxenabarreko tontorra, Pagolako herria eta Landetako mugetaraino Iparraldeko ordokia.



4. ZATIA > San Antoniko kaperak 705m

UTM : 662171 4783386

Kaperak aitzinetik pasatu, eta azpian den gurutze handiraino joan. Ordoki bateraino, kaskoan den bidexka segitu. Harkaitz baten ondoan den pista zeharkatu eta eskuin hartu harresia saihestetik segitu beharko baita. Larreetatik gandi, bidexkak muino handi bat zeharkatzen du pago batzuegana jaitsi aitzin. Ordoki bateraino, harresi baten azpian lurrezko pistan xuxen segitu.

5. ZATIA > Hesia

UTM : 662697 4785233

Hesia aitzin, jaisten den eskuineko bide hutsa hartu. Usategi ondoan pasatu. Horiek pasatuta 400m-tan, ezkerrean etxalde bateraino jaisten den pista hartu.

6. ZATIA > Eiheregia etxaldea

UTM : 664203 4784924

Eraikinen saihestetik pasatu eta ezkerretik jaitsi aparkalekura eramaten duen bide mundrunatuaren hartzeko.



INTERES GUNEA

❖ Uso ihiza

Oskaxeko lepoa, San Antonitik oso hurbil, RD918an, Maule eta Donibane-Garaziren artean, uso ehizarako gune famatu bat da. Urriar, ikusteko den aspaldiko ehiza mota bat ikusgai da. Hau armarik gabe, ehiza-sare deituriko sare bertikal batzuen bidez eramaten da. Teknika hau, erdi-oroan jadanik erabilia zen eta gaur egun ere Euskal Herriko edo Biarnoko hamar bat lepo desberdinetan erabiltzen da.

❖ San Antoniko kaperak

Agaramont eta Luxe familia botere-suen arteko bakearen ospatzeko kaperak 1385an eraikia izan da. Eta 1900ean bere kanpandorre kalbarioarekin berritua izan da. 1911an labaki batek, eraikin berriaren sute bat ondorioztatzen du. Murrak baizik ez dira xutik egonen. 1912an Muskildiko 447 eliztarrek zeinutegi txiki batekin berreraikia zuten. San Antoni, ekainaren 13an, uztailaren bigarren igandean eta agorriaren 19an beila gune bat berriz bilakatzen da.

ARRETAZ IBILTZEKO LEKUAK

- Ibilbide hau ez da gomendatua uso ehizaren garaian, 10/01etik 11/15era

- Artzain eremua : hesiak hets, abereak ez beldurtu, xakurra loturik atxik, abere taldeetarik aski urrun egon

- Gune lohitsu eta lerrakorrak: nahitaezkoa da mendiko zapatak janzea

EKIPAMENDUAK ETA ZERBITZUAK

Etxeko-gasnatagia (zuzeneko salmenta) Muskilditik ateratzean Maule aldera

Ibilbideen erabilbidea

ZAILTASUN MAILEN ADIERAZLEAK

Oinezkoen mendi ibilbideak zailtasunaren arabera sailkatuak dira zirkuitu bakoitzaren fitxa praktikoan.

Gisa horretan, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioaren gomendioak jarraitzen ditugu.

Oso erraza: 2 oren baino guttiagoko ibilaldia.

Familian egiteko arras egokia, bide ongi markatueta.

Erraza: 3 oren baino guttiagoko ibilaldia.

Familian egin daiteke. Bidexka batzuetan pasagune zailxeagoetan pasatuz.

Ertaina: 4 oren baino guttiagoko ibilaldia. Ibiltzeko ohitura duten ibiltarientzat. Batzutan kirol mailako lekuetan edo desnibela duten maldetan.

Zaila: 4 oren baino gehiagoko ibilaldia. Ohitura duten ibiltari

kirolarientzat. Ibilbidea luzea edota zaila da (desnibelatua, pasagune korapilatsuak).

MENDI BIZIKLETAZKO IBILALDIAK:

Oso erraza: bide zabala eta gurpiletarako egokia; 300 m baino guttiagoko desnibela.

Erraza: gurpiletarako nahiko egokia den bidexka; 300m baino guttiagoko desnibela.

Ertaina: bidexka teknikoak, 800 m baino guttiagoko desnibela.

Zaila: bidexka oso zaila, 300 eta 800 m arteko desnibela.

DESNIBELA

Fitxetan agertzen den desnibela, goera guzieren gehiketa da.

IBILALDIAREN IRAUPENA

Zirkuitu bakoitzarentzat emana den iraupena gutxi gorabeherakoa da. Kontuan hartzen ditu ibilbi-dearen luzetasuna, desnibela

eta izan litezkeen zailtasunak. Ibilaldi denbora geldialdirik gabe kalkulatu da.

PR® LABELIZATUAK DIREN IBILBIDEAK

Label horren bitartez, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioak onesten du oinezko ibilbide andana bat, kalitate irizpideen arabera. Hautua egiten da, plazer irizpideen, irizpide teknikoaren, turismo eta ingurumen irizpideen arabera (informazio gehiagorako: www.ffrandonnee.fr)

GPS DATUAK

Abiapuntuaren datua, latitude/longitudetan ematen da, zure ibilgailuaren GPSan sar dezazun. Gainerako datuak (ibilbi-dearen geldiguneak) UTM datuetan emanak dira. Hona erreferentziatzeko formatua: WGS 84 - UTM 30T

Jokamolde egokiak mendi ibilaldietan

Ipar Euskal Herriko bidexketan ibili nahi bada, natura errespetatzen duen jokamoldea izan behar da, baina baita lurralde hori biziarazten duten emazte eta gizonak errespetatzen dituen jokamoldea ere. Horretarako, garrantzitsua da arau batzuk errespetatzea.

Abiatu aitzin, presta zaitetz

- Ez zaitetzela abia beharrezkoa den materialik gabe (mapa, ura, jantzi egokiak, etab.).
- Ez zaitetzela bakarrik abia edo, hala eginez gero, hurbileko bati edo herriko etxeari jakitera emazioz (zenbait lekutan telefono sarrerik ez da eta ezin atzemana bilaka zaitetzke).
- Erreketako ura ez ezazula edan eta ez zaitetzela honetan baina.
- Eguraldiari buruz informa zaitetz, erabat alda daiteke. Jakinean izan zaitetz garai hauetaz: lur-erretze, ihizi, oihan-lanetako eta abar.

Natura zain ezazu

- Zakua har ezazu zure hondakinak eramateko.
- Abereak urrunetik eta isilik beha itzazu.
- Basalorerik, baiarik edota onddorik ez ezazula bil baimenik gabe.
- Lekuan emana den seinaletika errespetatu ezazu eta zaude bidexka zedarrituetan.

Laborantza eta artzaintza aktibitateak errespetatu itzazu

- Autoan ibil zaitetz emeki abere taldeetatik hurbiltzean.
- Autoa aparka ezazu horretarako antolatutako diren lekuetan, zirkulazioa ez trabatzeko
- Ez zaitetzela ibiltzera joan zure zakurrarekin, bestela, loturik atxik ezazu.
- Xeilak hets itzazu, handik pasa ondoan.
- Ibilbideen gaindi dauden jabego pribatuak errespetatu itzazu.
- Libre diren animalengandik urrun egon zaitetz eta ez itzazula bazka.
- Ez ezazula surik eta barbakoarik pitz.
- Kanpa ezazu baimenduak diren guneeetan bakarrik.

Zure hondakinen kudeaketa

Zure ibilaldietan, hondakinak zure bizkar-zakuan atxiki itzazu. Etxerat heltzerakoan, hondakinak bereiz itzazu eta bigarren bizi bat ukan dezaket!

ZENBAKI BALIAGARRIAK

- Météo France:
08 99 71 02 64 edo 32 50
edo www.meteofrance.fr

- Sokorriak: Larrialdietarako zenbakiak: 112 - SAMU 15 - SUHILTZAILEAK 18



ZURE IRITZIA GURE BIDEKKEI BURUZ

Proposatzen dizkizugun ibilbideak arreta handiz landu ditugu. Zure irudipenak eta oharrak gure bidexken egoerari buruz interesatzen gaituzte, eta bidexkak egoera onean atxikitzeko aukera ematen digute. Gonbidatzen zaitugu edozein arazo edo ohar baliagarriak jakinaraztera: sentinelles.sportdenature.gouv.fr

HELBIDE BALIAGARRIAK

Euskal Elkargoko Turismo Bulegoa
Turismoko Harrera bulegoak:

- ATHARRATZE
Arhanpia karrika
+33(0)5 59 28 51 28

- MAULE
Jean-Baptiste Heugas karrika
+33(0)5 59 28 02 37

PROFESIONALAK

Brebetadun profesional eta animatzaile anitzek laguntzen zaituzte ezagutuak diren bidexketatik kanpo. Haien zerbitzuetaz gozatzeko, harremanetan jar zaitetz Euskal Elkargoko Turismo Bulegoaren turismoko harrera bulegoekin.

ZEDARRITATZE ITUNA

Hemen aurkezten dizkizugun bidexkak oinezkoen ibilbideak dira (PR®) eta horiz markatuak dira. Halarik ere, bide zati batzuk ibilbide luzeekin (GR) batera litezke; eta kasu horietan, marka zuri-gorriei jarraitu beharko zaizkie. Ibilbide fitxetan zehaztuko zaizu hori.

	PR® TOKIKO BIDEKKA	GRP PAYS TOKIKO IBILBIDE LUZEA	GR® IBILBIDE LUZEA	VTT BIDEKKA
Norabide ona	—	—	—	▲
Itzul ezker	↶	↶	↶	◀
Itzul eskuin	↷	↷	↷	▶
Norabide okerra	✗	✗	✗	✗